



ZER

ALDIZKARIA

454. zenbakia
2018 GABONILLA

Bizkaitarrei Bizkaieraz



www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com



ZORION ETA URTE BARRI ON

Euskalerrian euskeraz EUSKERAZALEAK

2018-2019 IKASTURTEA

**BIZKAIERAZ 51. IKASTAROA
IRU MAILLA**

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 15ean

**51. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO
3 NIVELES**

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 19 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitamabost euro) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
ES28 2095 0000 74 2000089615**

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!

Ebago orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 35 €.

Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.

Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

LOIOLA-KO SAN IÑAZIO

Zenon Uriguen, Pasiotarra



Munduko miraririk aundiena ez da illak bizitza barri batera ekartea. Munduko miraririk goragarriena arimak eta biotzak berbiztutzea da. Au da izan be San Inazioaren bizitzan ikusten doguna. Ara emen bere bizitzan Kristo gure Jaunak egindako mirariak

Lenengo miraria.

San Inazio jatorri aundi bateko familian jaioa dogu. Bere gurasoak Beltran Ibañez de Onaz ta Marina Sanchez de Likona. Gaztetatik Arebalon eta geroago Najeran bizirik erregeen serbitzura. Bere bizimodua da jaiak, parrandak ta gerrarien ibillerak. Gero Iruñako arresietan zaurituta jauten da. Loiolara etorri ta asi dira beretzat oñaze garratzak. Zer izango da bere etorkizunaz? Bere zaurien oñazeak apur bat arintzeko abentura liburuak eskatzen ditu. Zorionez gaztelu artan Kristoren eta santuen bizitzaren liburuak bakarrik dagoz. Gogo aundi barik asi da irakurten eta ara emen Kristoren miraría, egizko miraría. Orain bai Kristo gure Jaunak berbiztu egingo dau, kristau bizitza barria bere izaeran eta bizieran eragiteko. Mirari ongarri orren bidez zer izango da? Kristoren ta Elizaren serbitzaria. Gaurko gaztientzat esangura aundiko ikasbide eraginkorra.

Bigarren miraría.

Manresara joan eta zer? Arrigarritzko miraría! Gogo jardunak egiteko liburu idatzi eban mundu osoan millaka gogo jardunetan biotz barneko zintzotasunez ausnartzen dana. Nundik eta zelan artu eban Inaziok zeruko argitasuna ain liburu ederra idazteko? Arrigarria da benetan Euskal kristau zintzo batek, Espiritu santuaren graziaz, olako liburu argitaratzea. Kristo gure Jaunak biotz-barnea zeruko graziaz era-berritu dau. Kristok bakarrik dauko grazi berezia olako miraría egiteko.



Irugarren miraria. San Inaziok Parisko Sorbona ikastetxe nagusian, beste euskaldun batez, Franzisko Jabier, ikasteak egiten diardu. Franzizkok aundikia izateko bere burua lilluratuta dauko eta jakinduriaren jaun ta jabe izateko itxaropena. San Inaziok bein eta beti dirautso: Zertarako da mundo guztia irabaztea zeure bizia galtzen ba dozu? Ekin eta ekin, ur tanta batek arria zulatzen dauan lez, Inaziok Franziskori biotz-biotzez esaten dautso: “Egiaz Kristo gure Jauna da munduaren Jaun eta Jabe” Franzizkok grazi eraginkor bat sentitzen bere izaera osoan ta biotzari bira osoa emonik, Kristori eskaintzen dautso bere bizia ta mixiolari izatea. Jaunaren mirari arrigarria! Eta badoa zeruko aize indartsu baten eragiñez Japon errietara Kristoren erreñua, fede barria, bizitza barria zabaltzera.

Laugarren miraria. San Inaziok lagun zintzo ta jakitun batzuekin sortzen dau Erroman Jesusen Lagundia 1541 urtean. Bere egitasmoa da karisma barri ta eragin-

kor bat mundu osoan zabaltzea. Baña ez da ekintza erraza izango. Lutero, sasoi ortan, elizaren ta Aita Santuaren aurka dabil bultzada aundiaz. San Inaziok ez dau bere burua sartuko, eztabaida latz orretan. Bere gogoia zintzo ta tinko erakutsiz “fundatu ta indartuko” dau Jesusen Lagundia elburu eder batez: “Jainkoarentzat aintza gorena”. Eta zintzo jokatuko dau, Espiritu Santuaren graziaz, Kristori jarraitzeko adore biziaz. San Inazioarentzat Espiritu Santua da “argia ta sua” bere izaera osoan maitasunaren sugarra biztutzen dauana, profetaren sormena ta Kristoren bizi barria eragiñik. Ara emen Jaunaren miraria: San Inazio izango da Kristoren eta Elizaren “zerbitzari bete-betea”. Mundu onetako miraririk aundiena ez da illak berbirtutzea. Mundu onetako miraririk aundiena da arimak eta biotzak Kristoren bizitza barri batera ekartea.



AFRIKA´KO IPUIÑAK/ ALEGIAK ZAZPI ERREGIÑA

Nigeria´ko alegi onetan batera dabiltz piztiak eta gizakiak eta bitzuen alkar-lana da semeari benetako ama aurkitzen dautsona.

Errege batek zazpi emazte eukazan, bata ondo maitatua, bestea gorrotatua eta besteak naikoa atsegiñak.

Erregeak dortokeari deitu eutson aolkua eskatzeko eta esan eutson:

-Emazte bakoitxagandik seme bat nai dot eta orretarako aolkua emoidazu.

Dortokeak erregeari esan eutson:

-Ona emen zazpi intxaur, emazte bakoitxarentzat bat, oneik jaten dabezenean aurdun izango dira eta zuk zazpi txanpoi emon bear daustazuz.


Erregeak emon eutsozan zazpi txanpoiak eta egin eban dortokeak agindutakoa. Egun bat beratan jaio ziran zazpi umeak, mutil bat eta sei neska, eta mutilla zan maite ez eban emaztearena.

Erregeak ez ebazan maite neskatillak eta auxe agindu eutsen bere mirabeai:

-Bota erre kara sei neskatillak!

Artu eban mutilla eta esan eutson geien maiten eban emazteari:

-Ama zara! Auxe da zure semea!





Mutikoa azi egiten zan eta geroago ta ederragoa zan eta obea be bai.

Luma ederdun txori bat maite eban eta onegaz ebillen beti eta asko irakasten eutson txoriak.

Bein baten txoriak mutikoari esan eutson:

-Azi zaitun emakumea ez da zure benetako ama.

Mutikoa aitagana joan zan egia jakiteko. Aitak esan eutson:

-Jai aundi bat egingo dogu jauregian eta emazte bakoitxak zutzat janari bat gertatuko dau. Zutzat onena dan janaria gertatu dauana, axe izango da zure ama.

Bere artean iñoan erregeak: Semea gosez euki eta lortuko dot emazterik maiteenaren janaria beretzat gozoena izatea.

Eldu zan mutikoa jauregira eta guztiak eukazan begira.

Erregearen semea zuzen joan zan janari bat artzera eta pozik jan eban barazki-saldea, txoriak esan eutsolako zein zan erregearen pentsabidea.

Orrelan aurkitu eban mutillak benetako ama eta erregeak ikasi eban eurak maitatzen.

† OLAZAR´tar Martin´ek





GARRAIOBIDEAK

Aldaketa klimatikoa ekiditzeko ainbat gauza egin diran arren, metroa, bizikleta edo autobus zerbitzuak biztanleriarentzat eskuragarri jartzeak besteak beste, jende askok, kotxeak edo motorrak emoten daben askatasuna naiago dabe. Ori dela eta, planetak pertsona orren azolagabekeria pairatu egiten dau, konponbide orren emankortasuna gitxitzen.

Iri aundi bateko biztanlea nazan aldetik, Bilbokoa ain zuzen be, bertan bizi dan egoera azalduko dot. Izan ere, beste ainbat tokietako egoera islatzen dau.

Bilbon, beste ainbat irietan lez, ondo baino obeto dakie aldaketa klimatikoak ekar leikezan gatazkak. Orregatik, orain dirala urte batzuk, tren, metroa, autobusa, tranbia eta bizikleta zerbitzua biztanleentzako zein turistentzako eskuragarri jarri zan. Eskaintza zabal onek, ainbat onura besterik ez dauz ekarri. Alde batetik, biztanleriaren erosotasuna. Izan ere, Bilboko zein Bilbo ondoan dagozan errietara joateko aukera emoten dau. Era berean, zerbitzu onen ordutegia zabala da, au da, geien jota 30 minutu itxaroteko tartea dagoz. Gainera, garraio publikoaren zerbitzuen app bat eskuragarri dago mu-

gikorraren bidez informazioa begiratzeko. Ots, ordutegiak edo garraio publikoaren, ibilbideak jakiteko. Beraz, ez dago aitzakiarik.

Beste alde batetik, serbitzu au, kotxea ez artzeko aukera emoten dau. Onek, askatasuna emoten. Izan ere, erriko festetara edo neke egotekotan, baliabide au erabiltzeko aukera emoten dau. Gainera, metroa edo tranbia erabiltzerakoan, trafikoa ekiditzen dozu, beraz, joan gura zaran lekura, beti garaiz elduko zara. Tranbia, edo autobusa erabiltzen badozu berriz, trafikoa pairatzeko aukera dago, baina garraio onek elmugara berandu eltzekotan, gidariak, justifikante bat errazten dautsu lantokira eroateko. Kotxez egoera au gertatzen bajatzu, zure nagusiarren aserrea entzutea besterik ez dozu.

Onenbestez, argi dago garraio publikoak, abantail asko ekar dautsuguzala eta abantail orrek erabili eta gero, planeta laguntzeko aukera dagoela. Beraz, asi gaitezen kotxea alde batera isten. Izan ere, garraio publikoari esker nai dogun tokira eldu gaiteke.

Euskerazaleak

Lenengo aldiz Lezon eta Donostin

1

Bein bear eta berriro
noa bertso tara edo kantura,
dozenatxo bat moldatutzeko
guztiak nere kontura.

Esan nai nuke zer datorkidan
sarritan pentsamentura:
lenengo aldiz Lezora eta
Donostira joandako ura.

2

Udazkeneko igande bat zan
da Lezon Santa Gurutzak,
guraso onak iritsi nairik
zeru aldeko laguntzak.

Bazan jendea, eliz-tabernak
etziran ageri utsak;
ontaz aurrera jakiñekoak
ziraden ango izkuntzak.

3

Meza santua, errosario,
etengabeko otoitzak,
promes eginda eskariren bat
izango zuan bakoitzak.

Pamili edo ikullurako
da gaiñontzeko langintzak;
itxaropenan doaia bai du
Santa Gurutzan elizak.

4

Oraindik ere fededun pranko
inguratzen da Lezora,
Santa Gurutzak ematen duan
fedezko itzal gozora.

Laguntasun bat ekarri nairik
etxera edo auzora;
ori sinisteko ango makuluk
ikusitzea asko da.

5

Esaten dute fede kontua
geiago zala lenago,
izan liteke baiña oraindik
dana galdua ez dago.

Goiko laguntza ez ote degu
iñoiz baiño bearrago?

Itxaropenik ez baldin badet
ni beintzat galdua nago.

6

Sasi-Jainkoak ugaldu dira
da danak erakusteko,
beste munduan ezer badanik
oiek ez dute usteko.

Itxu bizi dira zeru-lurran
mirariak ikusteko;
gure gaiñetik Norbait badala
fedez pentsa-arazteko.



7

Eliz da bazkari egin genduan
Lezo orretako jira,
etxerakoan geldi aldi bat
egitera Donostira.

Taberna, jatetxe eta jendea,
ezker eta eskubira;
orduho izen asko gaur-egun
berdin ikusitzen dira.

8

Alde Zar ortan bazebillen bai
jende zar eta gazterik,
jendetsa ura ikusi gabe
ez bai dago sinisterik.

Da eguardiko arraun jaia
guk ez gendun ikusterik;
"Oriok bandera irabazi du"
etzan entzuten besterik.

9

Kaiara ere joan giñaden,
gauz askok poztu ginduzten,
arriturikan ibilli nintzan
ango ontziak ikusten.

Da barku aiek zertako ziran
aita zana erakusten;
guk jaten gindun arraiak ere
nola ekartzen zituzten.

10

Akuariun ikusi gendun
o an zenbat arrai klase,
aruntz da onuntz pozik zabilzan
itsasoan bezelaxe.

Ainbeste gauza ikusi arren
ala ere ezin ase;
ordu erdi bat ixtan batean
igaro zitzaigun antxe.

11

Igeldon ere izandu giñan
egin gendun ango jira,
arrigarrizko trabia baten
eroso asko mendira.

Arridurarik aundiena nun
itsasoari begira;
joan bezela Norteko trenan
ondorenen erretira.

12

Lenengo aldiz zapaldu nitun
bai Lezo da bai Donosti,
bieta ere buelta pranko
egiña nago gerozti.

Atzo gertatu balitz bezela
gogoratzen zaizkit noski;
ankak makaldu baiña memoriz
oraindik ez nabil gaizki.



Txomin Garmendia

EUSKAL ADITZ ALOKUTIBOAZ

Juan Manuel Etxebarria

SARRERA

MATRIARCALISMO Y EL MUNDO VASCO

LETRAS DE DEUSTO

Citemos textualmente a **A. Ortiz Osés** como punto de partida. Dice así sobre el matriarcalismo vasco:



“Se entiende por matriarcalismo vasco la estructura psicosocial centrada o focalizada en el arquetipo matriarcal-femenino (Madre/Mujer, el cual encuentra en el arquetipo de la Gran Madre vasca Mari su precipitado como proyección de la Madre Tierra/Naturaleza) que impregna, coagula y cohesiona el grupo social tradicional vasco de un modo diferenciante respecto a los pueblos indoeuropeos patriarcales”.

MITOLOGIA: MARI (FEMENINOA)

ITANO: MARKA FEMENINOA ADITZEAN
(-K/ -NA)

IZTEGIA: SARRERA FEMENINOA (OLLO/OLLAR; KATU/ KATAR; ASTO/ ASTAR; AZKONA/ AZKONAR; SAGU/ SATAR; SUGE/ SUGAR; MANDO/ MANDAR; USO/USAR; OTE-OTEME/ OTAR; ERLE/ ERLASTAR...)

BIKOIZTEA: NESKA-MUTIL;
ARREBA-NEBA;
IZEKO-OSABA;
AITITA-AMAMA; etab.

UGATZ: TETA, PECHO DE LA MUJER;
BAÑA UGAZABA= DUEÑO

ATSO (EUSKERA) AGURE (*LATIN?)

IZENDATZEAK: NESTA-MUTIL;
ANDRA-GIZON;
ATSO-AGURE;

ERREFRAUAK: ANDREA ETXEKOI,
GIZONA BASOKOI.

ETXEKOANDRE; ETXANDERE...
(TXOMIN- JUANA
TXIKERRA) (AGINDU
NEUK, EGIN JUANAK
ESANA)

ANDRAGINE DA GIZON ORI

AMA: AOA BETEKO ITZA

ATSOTITZAK: ERREFRAUAK “
ATSOAREN ITZAK”

ZELAKO ANDREA ALAKO ETXEA

ANDRE ONA ETXEKO ISPILLU

EUSKERA: BETIKO GEURE-GEUREA

AOZKO TRANSMISIOA

**TESIA: ECONOMÍA-EUFONÍA-TRANSMISIO
GENERAZIONALA**

SISTEMA OSOA: BEAR DANA LEKU-DENPORAN

**ITANOA-ALOKUTIBOA: NI-I-A-GU-AIK: 5
PERSONA.** Maskulinoa / Femeninoa.

ESALDI NAGUSIAK: HITANO //
SUBORDINATUAK: ZUKA

PARATAXIA: (PARA= AL LADO/ TAXIS=
ORDEN) NAGUSIAK.

HIPOTAXIA: (HIPO=DE DEBAJO/TAXIS=
ORDEN SUBORDINATUAK

SINTAXIA: (SIN= CON / TAXIS= ORDEN)
Grg. Sin-Tasso= ordenar.

ZUKA: NI-I-A-GU-ZU-ZUEK-AIK: 7
PERSONA.

REAJUSTEAK: (ZARA/ ZARATE...A>URA/
BERA)

**ZU (VOS: PLURALA)=I(TU:SINGULARRA):
ZUEK(VOS+OTROS) + PLURALA.**

BERORIKA: IRUGARREN PERTSONA

DEKLINAZIOA: 17 KASU: ERGATIBOA,
ABSOLUTIBOA: (SUJETO
INTRANSITIVO Y OBJETO
TRANSITIBOA MARKA
BARIK)

PARTITIBOA, GENITIBOA: LEKU-DENPORA,
ABLAT.

ADITZAK: 28 SINTETIKO ETA
PERIFRASTIKOAK
GANETIKOAK

**IRU KASU GRAMATIKALAK ADITZ
BARRUAN**

**PLURAL BIKOITZA OBJETUAREN
ARABERA (DOT/DODAZ: DUT/DITUT)**

**MORFO-SINTAXIA: GALDEGAIA:
ELEMENTO
INQUIRIDO**

ESALDI PASIBOEN FALTA
ERGATIBOAREN ALDE

ERREFRAUAK ETA ESAMOLDEAK:
(NEURE BURUARI...

GU, GURE, GUREAN, GURERIK...

AURREKOAK ERREFERENTE: ESAERA;
ABESTI; ETAB.

ETNOTESTUAK: 1.- ABADEARI
ITANOZ. 2.- PATXI BILBAO (
BALTZOLAKO SUGE-DEABRUA)

EUSKAL IZAERA HISTORIAN:

MUNDUA EUSKERAREN ETA EUSKAL
KULTURAREN GALBAETIK ERALGIA.

PROTOEUSKERA:

SISTEMA OSOA, GARAIAN
GARAIKOA.

EGOKITZEN LEKU-DENPORETAN
BEARRIZANEN ARABERA, **BAINA
NORTASUNA GALDU BARIK.**

ASIERA?> EUSKALKIAK> 1968an
BATUA

GAUR ZER?

1-. AURREKOEN ALTXORRA ARTU

2-. EGOKITU ETA ABERASTU

3-. ETORKIZUNERATU EUSKADIN
ETA ARAGOAN.

**EUSKAL ERRIA EUSKALDUNTZEA,
GEURE ESKU DAGO.**

*Gauetz egon arren ilun
argia egunez egun,
euskerak eta euskal kulturak
egiten gaitu euskaldun.*

SAN JOSE de ANTXIETA, SAN INAZIOREN SENIDE

Zenon Uriguen, Pasiotarra

Franzisko aita santuak kanonizatu dau azken urteotan, San Jose Antxieta Brasilgo mixiolari ospetsua, Loiolako Inazioren senide, Juan de Antxieta semea, Azpeitiarra, Urrestilla, Loiolako Inazioren senidea. San Jose Tenerif-en jaioa dogu eta bere esanez "Bizkaino" dala adierazten dau.

Bere aita Juan Antxieta 1520 urtean, erregearen aginduak bere idazkari izentatu dau. Sotzi urte geroago Kanarias´era bialdua izan da epaitegiatako Pedro Fernandez de Lugo´ren arazoak konpontzera. 1530 urtean epaitegiak amaiturik, Juan La Lagunan biziko da eta ezkondu zan alargun pobre bategaz eta bederatzi seme alaba izan ziran. Jose gazteak laster artu dau erabaki eta burubidea, mixiolari izatea. Zelan bete asmo eder ori? San Iñazio bere senidearen jarraitzale izateko eta Jesusen Lagundiaren laguntza ta babesa eskuratzeko Coimbra Jesuiten Ikastetxe nagusira zuzenduko da ikasteak egin eta Jesuita izateko.


1553 urtean Brasilerara doa eta itxasontzia erdi ondamendian ikusirik itxas porturik ez dagon tokian lurreratu ziran. Aurrean baso eder-zabalak. Zer egin? Oraintxe da, bai, Joserentzat une egokia eta erabakikorra bere fedea eta giza-serbitzua Kristoren antzera bizi eta iragarritzeko.





Gauza bat dago argi: emen luzaro egon zala Indioen artean, euren moduan bizirik. Ara emen bere gogoia: alegiñak egin euren izkuntza eta oiturak bizitzeko, leen eta bein ikusi eta ikasi. Ez dauko irakasle izateko ardurarik ta bai ikasle izateko. Azkar ikasi dau euren izkuntza. Indiar Tupitarren izkuntzan gramatika bat argitaratu dau eta idatzi-irakurten geienak ikasi dabe. Eta arrigarria! Jose Antxieta, talde batekin, fundatu dabe Sao Paulo. Emen batuko ditu basoetako indiarrak eta izango dabe beste bizigiro bat: Eskola, alkartasuna, lanbidea, etxegintza, lugintza, abelzaintza etb. Ekintza onen ondoren bere entzute ona eta ospea asko zabaldu zan Brasilgo erri ta agintaritzan. Eta zer? Indioen arteko eztabaidak eta banaketak zuzendu eta bakea egiteko "bitarteko" jarri eben. Zorionez bake bidera etorri ziran jauntxoak eta menpekoak. Azkenik Jesuiten artean probintzial izendatua izan zan. Ondo dago berak esana "Ni bizkaino naz" Eta obeto datorkio: "Ni izango naz kristau santua, Kristoren Mixiolaria eta gizakiaren serbitzalea"

EUSKALERRIAREN EDESTIA-I (XIII.)



3. ZATI KO.

Sarreratik datorrena.

Eneolitiko, edo denbora iragankorra azkeneko arri-alditik, tupiku edo Menast-eko aldiraiño⁽¹⁾.

Eneolitiko edo Tupiki aldi an sartzen garanean orain K.a. 4.000 urte, Altunatar Jesusek esaten dau, ezbardintasun txiki batzuk aurkitzen dabezala, mendi ta ur edo itsaso ta mendi orren erdi-inguruan bizi direnarekin, baiña ezeren garrantzi barik.

Beste gauza bat esaten dau, Ebro ibaitik bera bizi zirenarekin, orduko denboretarako Lurrarteko itsasoaren bidetik sartu ziranakaz nastuten asita egon zirala.


Gertakizun au K.a. 5.000 urte ariñoago sortu zan, Iberoak Afrikatik urten da(?)⁽²⁾, erdi ugarte onen erdian, Ipar Mendebalean eta Egoaldean kokatu ziranean. (Onek euskaldunak ziran)

Ez eben Euskaldunakin arazo aundirik euki eta eurak jabetu ziran (?) lurralde orreikaz.

Ala euskaldunakaz bat egin edo menperatu ebezan ?.

A ta guzti ez dot uste aiñ erreza izango zenik, euskaldunak urte mordo bat bizi zirelako oraindiño lur orreitan, toki izenak eta euki ebazan euskal itzak esaten daben lez.

Dana dala eta konturatu gaitezaz, ikus-begian gorago ipini dogu, zelan Ekialdeko giza, egu-giro beroagaitik, Mende-



(1) Tupiki aldia = edad del bronce. Menast = metal. (2) Nik geiago ezango neuke, euskaldunen zabaltasunak izan zirela beste barik, eurak baiño ez ziralako egon peninsula edo ugarte erdi onetan, barru aldean beintzat.



baldekoak baiño 3.000 urte aurreragoatuta egon zirala, eta nundik asi ziran gizarteko menpekotasunetan, gero mundu zabalean zabaldu zana, bai ta Paleolitiko-Neolitiko alditan lortuta euki eben jendekuntz ederra, zelan berezko erriak menperatzen asi, ta euren Askatasunezko Demokraziak zirrriborrotuz, alperrik galtzera bota ebela Paleolitikoan lortutako jendekuntz eder ori.

Emen, 2.010ean karmeldarrakin Israelera txangolari joanda Karmelo mendia ikusten joan giñanean, Negreltar Franzizko edo Pako karmeldarrak esan euskuna.

Karmeloren izena ebretarren izkuntzan, Jainkoaren baratzta edo lorategia esangura dau, eta Pako⁽¹⁾ karmeldarrak danon aurrean ipinita Eliasek Jainkoari egin eutson eskeintza irakurri euskun, auxe esaten dauana:

Israeleko Ajab erregeak egun areitan, Israel guztia eta Baaleko igarle guztiak, Karmelo mendian batu zitezen agindua emon eban.

Eta Elias jendearengana urbilduta esaten dautse: noiz arte ibiliko zarie besapekomakuluakaz ?.

-Goiko Jauna egizkoa izaten bada jarraitu ezasue, eta Baal izaten bada, Baaleri jarraitu.

Jendeak ez eban erantzunik emon, eta orduan *Eliasek esaten dautse: Neu bakarrik geratu naz Goiko Jaunaren igarle, Baaleko igarleak 450 izan da.*

Zekor bi emon daizkugula eskatu eban, eta zuek gura dozuen zekorra aukeratuta, zatitu

(1) Pako karmeldarraren izena Aita Negreltar Franzizko da, eta Jerusalemenez ezagutu neban.

ta egurraren gañean sua biztu barik apainduta ipini egizue, nik bardin eginda.

Zuek, zuen Jainkoari dei egingo dautsazue, eta nik *goiko Jaunari*, eta sua bialduta erantzuten dauan jaunak, a izango da benetako *Jainkoa*.

Eta jende guztiak baietza emon ondoren, Eliasek Baaleko igarleari esan eutsen: Zuek geiago izan ezkeru aukeratu egizue zekorra eta apaindu, sua piztu barik.

Alan egin eben eta goizeko lenengo orduetatik eguerdirarte ibili ziran euren jainkoari sua bialdu egian eskatzen: *Baal jauna, sua bialduta erantzun egizuz gure eskariak*, aldare ingurutik saltoka ibilita.

Eliasek eguerdirantza, eurei begira barreka asi zan, berra oneik esanda: *Baal jauna da, baiña arrabots zaratatsu geiagorekin deitu deutsezue, baleike gogaketan, lanpetuta, bidai baten, edo batek badaki lo egiten egonda esnatzen bada*.

Baalen igarletarrak etsitasunean, euren oiturazkoa zan lez arrabots aundiagoak eginda, eta gorputzetan aizto ta burni-ziriakaz ebagiak egiten asi ziran gorputz guztia odolez bete arte.

Eta eguerdia igarota, larri aldiko zorian ⁽¹⁾ sartu ziran, areik eta eskeintzaren ordua eldu zan arte.

Iñungo erantzunik ez zalako

(1) Larri-aldiko zorian = en situacìon de trance. (2) Zison ibaiaren ur-amillera eroanda = llevados ala torretera del rio Cison.

agertzen, Eliasek jendeari esaten dautso: ondoratu zaitzeze, eta Jainkoari eskeintzeko apurtuta egon zan aldarea, konpontzen asi zan.

Baiña ez edozein eratarata, Jainkoak berari len Isrraelen izena artu bear eben eran baizik: *Eta Jakobena Isrraeldar amabi leiñuaren itxurapenean amabi arri artuta, aldarea konpondu eban*.

Aldare inguru guztian erretena edo ur-bide andi bat eginda, zekorra zatitu ondoren, aldareko egur gañean ipini ebazan zatiak ondo apainduta, ta jendeari esan eutson: lau txanbil-ontzi aundi, uragaz bete egizue eta bota zekorra ta egurraren gaiñetik.

Iru bider egin eben orretara, zanga guztia uregaz bete arte, eta Elias igarlea ezkeintzaren ordua elduta, aldare ondora otoi egiten urbildu zan: *Jauna ! Abraan, Isaak eta Isrraelen Jainkoa, Jende auek ikusi dagiela, Zu zarala Isrraelen Jainkoa eta ni zure serbitzaria, eta eskeintz au, Zure aginduz egiten dodala. Erantzun Jauna, jende guzti onek jakin dagin zu zarala benetako Jainkoa*.

Eta jainkoak zimizta bat bota ondoren, ura, aldare, zekor zatiak ta arri guztiak kizkalduta geratu ziran.

Jendeak a ikusita, danak aldarrikatu eben bera zala egizko jainkoa.

Eliasek orduan, Baaleko igarle guztiak arrapatu egiezala agindu ondoren, eta Zison ibaiaren ur-amillera⁽²⁾ eroanda, danari buruak moztu eutsezan.

Gero, euren lekaidetxe edo beko eleizaren inguruko zuaitz eta lorategira bialdu ginduzan,

Idazti Deunan esaten dabezan orreïn gogoetak egiteko.

Esan orregaitik, argi ikusten da emen, Jaungoikua ez zala Izadi onen irazale edo sortzaillea, menperatzaillaren kide edo laguna baiño.

Gaurko erlijioek, zelan jarraituko leukie adibide orreikaz ?.

Siñest-eziñezkoa da.

Egia da, gaur egunean alango adibideak ipini ezkeru, ez daukagula biderik alderdikerizko nor-keritasunaren menperatzaill eritzitatik urteteko,



eta ordua da goimailako jakintasunetan daukaguzan buru jakintsu orreik argitu daitezten. Ala, jakintasunezko itzak esangura dauanagaitik, ez ote dabe ikasiko ezer ?.

Nik uste dot bigarrena dala egizkoa, Izadi onek daukan lilluratasunezko gaitzutsukor edo koipetsuaren gainetik, ez dabelako ikusten ezer.

Ekialdeko jendekuntza, eta zelan asi ziran menpekotasunak.

Orretarako, Asia, Ejipto, eta Greziaren edesti laburrak aurkeztu bear doguz, jakin daigun, zerk eragin ebazan Europaren Mendebalerantza indoeuropeo edo alde-rraieren etorkerak.

Asia, Afrika, eta Europa ´ko gizartearen leen jendekuntzak.

Leinuen auzotasuna ardurazko antolamenduan ta leen euskerazko izkuntzan egokituta egoteaz gain, egu-giro gozotasunagaitik, goian esan dogun lez, Europa baiño irumilla urtearen aurrerakuntza artu eben, bai ta nortasunezko bidetik alde eginda K.a. 4.000-3.000 urte inguruan norkerietan be asi zirala.

Mundu onen leen jendekuntzak⁽¹⁾ egu-giro onak lagunduta, Ekialde Urbil eta Ekialde Erdi inguruan sortzen dira.

-Indo ibai eta Nilo ibaiaren bitartean, eta apur bat estutu ezker Tigris eta Eufrates ibaiaren bitartean.

-Sumeriako erria, orain K.a.4.000-2.500 urte bitartean sortu zan.


-Oso aurreratuta egon bear ziran Sumerio oneik, arkeoloji lanaren bitartez aurkitutako ondarrak, ziri antzeko⁽²⁾ irudiaren⁽³⁾ idazkerea asmatu ebelako.

Burnigintzan, urre edo ta zillar lanean, obekuntzazko edertasun aundia erakusten dabe eta euren ortuak antzez edo egindako tresneriekin⁽⁴⁾ ureztatu egiten ebenetik, Sargon erregeak menperatu ondoren eta erri lez ezereztuten joanda, ortik aurrera ordezeko lez, Babilonia sendotu zan azturazko jakintzan.

Atutxa ´tar Paul


Zornotzan 2.017ko urtean Urrillaren 16an

(1)Jendekuntzak=civilizaciones. (2)Ziri antzeko = cuneiforme, en forma de cuña. (3)Irudian= ideogràfica. (4)Egindako tresneriekin = artificialmente. Egitezkoa = mètodo empírico.



Euskaldun barrientzat ikasten

Zazpi utsak



ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar


..... kalean (auzoan)..... zenbakian

..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko (ogeitamabost euro) kontu onetan:

Euskerazaleak, Bilbao bizkaia kutxa : ES28 2095 0000 74 2000089615 zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN “ZER”. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!



Orra Mari Domingi
begira orri
gurekin nai duela
Belena etorri.

Gurekin nai baduzu
Belena etorri
atera bearko duzu
gona zaar ori.

**ATOZ, ATOZ, ZURE BILA NENBILEN NI !
ATOZ, ATOZ ZURE BILA NENBILEN NI!
ATOZ GOAZEN TA GURTU DEZAGUN
BELENEN JAIO DEN AURT XO EDER ORI
AURT XO EDER ORI.**

